



Bizkaibus te acerca a la ópera

Bizkaibusek operara hurbiltzen zaitu

Agertokian:

Claude Debussy

LA CAJA DE LOS JUGUETES

8, 9, 10

Azaroak /
Noviembre 2025



Eszena-zuzendaritza/

Dirección de escena:

Enrique Lanz

Ekoizpena/Producción:

Etcétera, Junta de
Andalucía



Arriaga Antzokiak eta ABAO Bilbao Operak elkarlanean antolatuta /
Una colaboración del Teatro Arriaga y ABAO Bilbao Opera



Errege Antzoki Juniorra 2017- 2018

Irudimenerako zubi bat

Jostailuen kutxa

Ipuin klasikoa pianoarekin eta txotxongiloekin



GIDA DIDAKTIKOA

J. C. Díaz de Cerio, Ana Hernández, Belén Otxotorena eta Uxue Uriz Fernando
Palaciosek eguneratua eta hedatua



AURKIBIDEA

SARRERA

Preludioa	3
Gida didaktikoa	3
Obra berean oinarrituriko beste ikuskizun batzuk.....	3

Jostailuen kutxa

Orokortasuna	5
Ikuskizuna	6

EDUKIAK

Konpositorea eta musika

Claude Debussy	7
Gutziz kontrakoa	8
<i>La boîte à joujoux</i>	8
Debussyren ezagutu beharreko beste obra batzuk	9

Parte-hartzaileak

Etcétera konpainia	10
Enrique Lanz ..	11
Jorge Camacho	12

JARDUERAK

Aurretiko Jarduerak

Motibazioa. Musika-entzunaldia. Hizkuntza eta instrumentazioa.....	13
Ahots-adierazpena	14
Gorputz-perkusioa	15
Adierazpen dramatikoak	17

Osteko Jarduerak

Dantza	18
Instrumentu-adierazpena	21
Adierazpen plastikoak eta dramatizazioa	22
Beste jostailu-kutxa batzuk	22

ERANSKINA

<i>Jostailuen kutxa</i> (ipuin musikala)	24
--	----



SARRERA

Preludioa

Ikuskizun honek Claude Debussyk 1913an jostailuen munduan girotuta idatzitako lana du oinarri. Etcétera konpainiak Enrique Lanz zuzendariaren eskutik osaturiko muntaiak familiaren memoria, oroitzapenen balioa eta batzuetan gure guraso eta aitona-amonengandik jasotzen ditugun objektuak aztertzen ditu. Errege Antzokiko Gayarre Aretoa "jostailu animatuen kutxa" bihurtuta, haurtzarora itzuliko gara. Samurtasunez, ezustekoz eta umorez beteriko ikuskizuna izango da.

Gida didaktikoa

Gida didaktiko hau haurrak emanaldirako prestatzeko tresna gisa sortu da, beren adina aintzat hartuta. Sarrera izan nahi du, alegia, haurrek agertokian ikustea espero duten horretarako prestaketa, ikuskizunaz gozatzeko eta ulertzeko. Beraz, *Jostailuen kutxa* ikuskizunera joan aurreko eta osteko lanerako laguntza izan nahi du. Irakasle bakoitzak bere ikasle-taldearen maila eta aukerak ezagutzen ditu, eta, hortaz, gidaren edukiak hautatu eta bere behar zehatzetara egokitu ahal izango ditu.

Hiru bloketan egituratu da: ikuskizunari buruzko informazio-preludio orokorra; eduki-sorta, musikari, obrei, interpreteei eta ilustratzaileari buruzko informazioz osatua; eta ikasleentzako jarduerak (irakasleak koordinatuta).

Obra berean oinarrituriko beste ikuskizun batzuk

Dantza-ikuskizun, ipuin musikal eta bestelako formatu ugari daude musika eta istorio beretan oinarrituak. Horietako batzuk sarean topa ditzakegu.

<https://vimeo.com/113766681> https://www.youtube.com/watch?v=I_ki8M5TGtI

<https://www.ensembleagora.com/la-boite-a-joujoux>

<https://www.youtube.com/watch?v=HZMGoF5wS-E>

<https://www.youtube.com/watch?v=FLHKK7AzHDg&list=PLSJXfom7rdgftjZtXdhS7OioLbL76r7J9>

<https://www.youtube.com/watch?v=h4OMLH2TpQ>



Jostailuen kutxa

Orokortasunak

Jostailuen kutxa (*La boîte à joujoux*) haurrentzako pantomima-balleta Debussyk antzerkirako konposatu zuen azken lan garrantzitsua izan zen. Jatorrian, haurrentzako liburuetan aditu Andrew Helle artistak ilustratutako istorioa zen. Hellek ballet-gidoi bihurtu eta Debussyk lan horretarako musika konposatzea onartu zuen. Konpositoreak Chouchou izeneko zazpi urteko alaba zuen eta, neurri batean, hura izan zuen inspirazio musika konposatzeko orduan, haren jostailu eta panpinekin batera. Istorioa honako hau da:

"Bazen behin jostailuz betetako kutxa bat lo sakonean. Gau batzuetan, jostailuek bizia hartzen zuten eta gela marinel, soldadu, polizia, elefante, pailazo eta panpinez betetzen zen. Gau batean, dantzaria izan nahi zuen panpina altxatu egin zen, eta, nahi gabe, besteak esnatu zituen. Zalapartaren erdian, bals bat dantzatu zuen bere mutil-lagunarekin, pailazoarekin, hain zuzen ere. Baina hark, lotsagabea izaki, berehala utzi zuen beste batzuekin joateko. Soldadu batek ankerkeria hura ikusi zuen eta seko maitemindu zen panpinarekin. Baina eguzkia irten zen eta denak kutxara itzuli ziren. Egunak joan, egunak etorri, beste gau batean, panpina eta pailazoa bakarrik zeudelarik, soldadu-armada bat agertu zen pailazoen aurkako behin betiko borrokarako prest.

Borrokaren ondoren, soldadu maitemindua lurrean geratu zen zaurituta. Panpinak jaso eta sendatu egin zuen, baita pailazo gaiztoa betiko utzi eta soldaduekin geratzea erabaki ere. Ezkondu eta zoriontsu bizi izan ziren panpinak oinordetzan jasotako baserrian, non ardiak, antzarak eta beren jostailuen kutxa zeukaten haur ederrak hazi zituzten".





Ikuskizuna

Etcétera konpainiak honela azaldu digu nolakoa den bere ikuskizuna:

"Enrique Lanzek sortutako ikuskizunak **La boîte à joujoux** du erreferentzia, baina baita De-bussyren beste lan batzuk ere, hala nola **The children's corner** eta **The little negro**.

Antzezten den obra nagusia La boîte à joujoux da, Claude Debussyk -musika konposatu zu-enak- eta André Hellék -istorioa eta ilustrazioak sortu zituenak- 1913an idatzia. Konpositorea eta ilustratzailea txotxongiloentzako ballet bat sortzeko aritu ziren elkarlanean, jostailuen uni-bertsoan oinarritua.

Enrique Lanz ere horretaz elikatzen da, eta bere ikuskizunerako txotxongiloak joan den mendeko 20ko eta 30eko hamarkadetako jostailuetan oinarrituta diseinatu ditu. Etcéteraren bertsio honetan, pianista bat, aktore bat, lau titiritero eta txotxongilo ugari daude, baita bideo-proiektzioak eta jostailu bizidun mordoa ere. Samurtasunez, sorpresaz eta umorez betetako ikuskizuna".




Ikuskizunaren laburpena hemen ikus dezakezue: <https://vimeo.com/35432978>



EDUKIAK

....Konpositorea eta musika.....

Claude Debussy



(Saint-Germain-en-Laye 1862 – Paris 1918)

Musikarekin inolako loturarik gabeko klase ertaineko familia xume batean jaio zen. Bederatzi urterekin, lehen piano-eskolak jaso zituen, eta hamarrekin, berriz, Parisko Kontserbatorioan onartu zuten, non, besteak beste, Guiraud, Cesar Franck eta Massenetekin ikasi zuen.

1890 inguruan, bere prestakuntza artistikoan eragin erabakigarrienak jaso zituen Debussyk: Parisko artista sinbolista eta inpresionistena, haien giroan maiz ibiltzen baitzen; Wagnerrena, zeina Bayreuthera egindako bi bidaiatan entzun ahal izan zuen; eta Ekialde Urruneko musikarena —batez ere Javako gamelana, bere lengoia pentatonikoarekin—, 1889ko Parisko Erakusketa Unibertsalean entzun zuena.

Bere musika iraultzaileak eta iritziek, 1901etik aurrera *La Revue Blanche* argitalpenean plazaratu zirenek, miresleak ekarri zizkioten, baina baita etsai garrantzitsuak ere.

Mendearen lehen urteetan, Debussyk bere jarrera berretsi zuen, *Nocturnes* (1901), *Pelléas et Mélisande* (1902) eta *La mer* (1905) aurkeztuta, arrakasta handiz; garai berean, Ricardo Viñesek piano-lan garrantzitsuak estreinatu zituen (*Pour le piano* 1902an, *Estampes* 1904an, eta *Masques* eta *L'Isle joyeuse* 1905ean).

Lehen Mundu Gerraren eztrandak nortasun nazionalaren sentimendua indartu zion, eta, hala, bere azken hiru sonatak honela sinatu zituen: "Claude Debussy, musicien français". Gatazka hark eta pairatzen zuen gaixotasunak pieza txikien konposizioan bakarrik aritzera eraman zuten. 1918an hil zen, minbiziak jota, Parisek alemaniarren bonbardaketa latzenak pairatzen zituen bitartean.

Harrezkero, Debussyren musikaren eragina handia izan da, hala Frantzia nola mundu osoan.



Guztiz kontrakoa

Badakizue XIX. mendeko operek bi berritzaile handiren joerei jarraitzen dietela: Verdi italiarra eta Wagner alemaniarra. Kasu hauetan gertatzen den bezala, maisu biek beren jarraitzaileak izan zituzten: Verdiren atzetik Puccini etorri zen, eta Straussek Wagnerren bidea hartu zuen. Konpositore frantses bat bakarrik mantendu zen estilo horietatik independente, ez zitzaizkiolako interesatzen ez bataren tragedia ilunak ez bestearen epopeia handiak; istorioak ordura arte ez bezala konta zitezen nahi zuen berak. "Kanpora negarra eragiten duten dramatismoak!" pentsatzen zuen, "Gerra, duelu eta eszena-erakustaldi handirik ez! Amaitu dira kanoiak bezala oihukatzen duten orkestrak eta arrazoirik gabe eztarria urratzen duten kantariak!". Debussyk nahiago zituen kantauak ariak baino: sotiltasunetara eta erdizka esandako gauzetara jotzea atsegin zuen, zuzenean kontatzen direnetara jo beharrean; isiluneen jazartzailea, ez zaratena; sakontasunen esploratzailea, ez gailurrena (hau da, espeleologoa alpinista baino). Izan ere, Debussy frantziarra pinpirina zen, bere musika laino lauso batean bilduta dagoela dirudi, non ertzak ez diren nabaritzen, argiak baizik (horregatik, ezin hobe da giroak deskribatzeko); horretan, benetako iraultzailea izan zen, gizon arraro samarra bere garairako.

La boîte à joujoux

Balleta 1913koa da, eta, Debussyk garai hartan idatzi zituen obra eszenikoetako beste batzuk bezala, ez zuen hark orkestratu osorik, baizik eta haren lagun André Caplet konpositore eta zuzendari frantsesak (1878-1925).

Obra musikalak atal hauek ditu:

- Preludioa
- I. *Le magasin de jouets* (Jostailuen biltegia)
- II. *Le champ de bataille* (Borroka-eremua)
- III. *La bergerie à vendre* (Artzain traizionatua)
- IV. *Après fortune faite* (Aberastu ondoren)
- Epilogo





Jostailuen kutxa

Debussyren ezagutu beharreko beste obra batzuk

The Children's Corner (Haurren txokoa, pianoa)

<https://www.youtube.com/watch?v=vcDmOHfEkLA>
<https://www.youtube.com/watch?v=vScP-IxqFDE>
<https://www.youtube.com/watch?v=YqDmBUGXKQO>
https://www.youtube.com/watch?v=G_YibI77Z4M
<https://www.youtube.com/watch?v=KKQO3gCgxqg>
<https://www.youtube.com/watch?v=gbTuNiNujHI>

The Little negro (Beltz txikia, pianoa eta beste bertsio batzuk)

<https://www.youtube.com/watch?v=5HBINcdit2Y>
<https://www.youtube.com/watch?v=1SLYMQMOKqs>




Clair de lune (Ilargi zuria)

<https://www.youtube.com/watch?v=ja7v4JTSLVw>

Fauno baten lo-kuluxkaren preludea (balleta)

<https://www.youtube.com/watch?v=Q62aHNTlyB4>
https://www.youtube.com/watch?v=V_LrFJsgmJc

Beau soir (Arratsalde ederra, abestia) <https://www.youtube.com/watch?v=22h3esF5daA>





...Parte-hartzaileak

Etcétera konpainia

Etcétera Granadan sortu zuten, 1981ean, Enrique Lanzek eta Fabiola Garridok. Berrogeita lau urte-ko esperientzia bereganatuta, gaur egun herrialdeko konpainia ospetsuenetakoa da txotxon-gilo-antzerkiaren esparruan. Bere lanaren bikaintasuna eta moldakortasuna zorroztasunaren eta abangoardiaren sinonimo dira.

Konpainiaren lana obra musikalak txotxongiloekin antzeztean datza, publiko guztientzako emankizunetan. Espainian liderra da genero horretan, eta bere obrarekin antzoki eta jaialdi garrantzitsuetako atea ireki du, orain haien ohiko programazioan txotxongiloak baitaude.

Hala, bidea erraztu die bere pausoei jarraitzen dieten hainbat konpainiari, Granadan titiritero askoren eskola eta harrobia izanik. Bere ikuskizunen bereizgarri nagusiak poesia, estetika eta ikerketa (historikoa, artistikoa, teknikoa) dira, proiektu bakoitza egituratzen duten fun-tsezko eragileak. Horri esker, lan bakoitza aurrekoaren desberdina izaten da, apropos, este-tikari eta teknikari dagokienez, eta berrikuntza etengabea da, hots, I+G+b konpainiaren ohi-ko jardunbidea da.

Bere lan-ildoetako bat txotxongilo-antzerki tradizionalaren eta garaikidearen ikerketa, doku-mentazioa eta zabalkundea ere bada.

2021ean, Cueva Secreta ireki zuen, natura, artea eta gastronomia uztartzen dituen gunea, Güéjar Sierran. Publikoarekin zuzenean harremanetan egoteko lekua da, ikuskizunen, taile-rren eta arte eszenikoak ingurune naturalarekin lotzen dituzten hainbat jardueraren bidez. 2024an, berriz, Topacio 14 ireki zuen, udalerri berean, lanerako, sorkuntzarako, prestakun-tzarako eta ikerketarako gunea.

44 urterekin, Etcéterak aurrera jarraitzen du, bere ikusleekiko konpromiso irmoarekin, bere gizarte-erantzukizunaz eta eskaintzen duen zerbitzu publikoaz jabetuta, eta lehen eguneko ilusio berarekin.



<http://www.titeresetcetera.com>
<http://www.facebook.com/TiteresEtcetera>
<https://twitter.com/%21/TiteresEtcetera>
<http://www.flickr.com/photos/enriquelanzetceera/>



Enrique Lanz (eszena-zuzendaria, eszenografia eta txotxongiloak)



(Granada, 1964)

1981etik Etcétera konpainia zuzentzen du. Bere prestakuntza autodidakta arte eszenikoko maisu garrantzitsuek ematen dituzten ikastaroekin konbinatzen du, besteak beste Xavier Fàbregas, Albrecht Roser, Henryk Jurkowski eta Jean-Pierre Lescotek.

Bere lehen ikuskizunekin, Synopsi (1985) eta Trans (1990), Europako txotxongilo-jaialdi garrantzitsuenetan parte hartu zuen, besteren artean Charleville-Mézières, Bielsko-biala, Mistelbach, Pleven eta Atenasen. Plaza horietan bereganatutako garrantzi eta prestigioa-tik, 1994an Espainiako Telebistak bereizmen handian grabatutako lehen antzerki-konpainia espainiarra izan zen. 1996an, Lanzek G. Bouzignacen Motets en Dialogue oratorioa ekoitzi zuen, Ensemble Instrumental de la Société de Musique Ancienne, Choeur Départemental des Alpes Maritimes eta Théâtre de la Massue erakundeekin batera. Urte hartan, Trans Te-herango Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdira gonbidatu zuten eta ikuskizun onenaren saria irabazi zuen; gauza bera gertatu zen, 1998an, Synopsi lanarekin.

1997an, Lanzek Pedro eta otsoa zuzendu zuen, 1999an haurrentzako ikuskizun onenaren Teatralia sari nazionala jaso zuena. Lan horrek, 2002an, Bartzelonako Gran Teatre del Li-ceuko areto nagusiko ateak ireki zizkien hurrei, eta gaurdaino 3.000 emanaldi baino gehia-go eskaini ditu Espainian, Europan eta Amerikan.

Une horretatik aurrera, zuzendariaren lana txotxongilo-ikuskizunen sorkuntzara bideratu zen, musika klasikoaren errepertoriotik edanez: La serva padrona (1998), Historia de Babar el elefantito (2001) eta Soñando el carnaval de los animales (2004), El teatrino de Bernat (2005), El retablo de maese Pedro (2009), La caja de los juguetes (2009), El sastrecillo vali-ente (2013).

El retablo de maese Pedro emankizunean egindako lanagatik, Enrique Lanzek 2008-2009 denboraldiko eszena-zuzendari onenaren saria jaso zuen Bartzelonako opera-kritikarengandik.

Bere aitonari, Hermenegildo Lanz artista plastiko polifazetikoari, eskainitako hainbat erakus-ketaren komisarioa izan da, baita Zientzien Parkeko automatei buruzko urteroko ekitaldiko aholkulari artistikoa ere. Eszena-zuzendari eta titiritero jarduteaz gain, lan handia egiten du El alma del pueblo proiektu dokumentalerako dokumentalista, bideogile eta argazki-zuzendari.

2016an, Andaluziako Nazioarteko Unibertsitatearen Antzerki Saria eta Granadako Diputazi-oaren Granada Coronada aitortpena jaso zituen. 2017an, Granadako Udalaren Prestigio Tu-ristiko Nazionalaren Saria jaso zuen. 2023an, Granadako Diputazioak Federico García Lor-ca Patronatuaren sari nagusia eman zion, Pozo de Plata deritzona. 2024an, Granadako Le-tra Onen Akademiak Francisco Izquierdo saria eman zion Granadako kulturari egindako ekarpenagatik.

Gehiago jakiteko: http://www.eldiario.es/andalucia/Enrique-Lanz-Yanisbel-Martinez-Titiriteros_0_379363041.html.



Jorge Camacho (pianista)

Ikasketak Linaresko "Andrés Segovia" musika-kontserbatorio profesionalean hasi zituen, 2009an, Juana María Ruiz Hidalgo eta Ángel Ocaña irakasleekin. Bertan ikasten ari zela, I. Ganbera Musika Lehiaketako 1. saria eskuratu zuen. Ondoren, bere prestakuntza Granada-ko "Victoria Eugenia" goi-mailako musika-kontserbatorio errealean jarraitu zuen, Miguel Ángel Rodríguez Laiz jaunaren eta José Luis de Miguel Ubago jaunaren tutoretzapean, eta azken notetan 'bikain' lortu zuen. Ikastetxe horretan, 3. saria lortu zuen 2019ko Ganbera Musika Lehiaketan. 2024-25 ikasturtean, beka bat jaso zuen Vienako Musika Unibertsitate prestigiotsuan Bernard Pösch irakaslearekin ikasteko.



Estatuko eta nazioarteko pianista entzutetsuen eskola magistralak jaso ditu, besteak beste Daniel Ligorio, Ángel Sanzo, Guillermo González, Javier Negrín, Javier Herreros, Tuija Hakkila, Elizabeth Aigner-Monarth, Domenico Codispoti eta Peep Lassmannenak.

Bere ibilbideko azken urteetan parte hartu duen proiektuetan bakarlari aritu da, "Joaquín Tu-rinaren omenezko kontzertu-omenaldia"-n, adibidez, Miguel Sánchez Ruzafa jaunaren zu-zendaritzapean Granadako udal-bandarekin batera. José Nieto filmetako musika-konpositore espainiarrari eskainitako "José Nieto, 75 aniversario" diskoaren grabazioan ere parte hartu zuen, Granadako Unibertsitateko Orkestrarekin eta Granadako Gazte Orkestra Sinfonikoarekin batera. 2019ko irailaz geroztik, Granadako Títeres Etcétera konpainia ospetsuko kidea da.





Aurretikojarduerak

Motibazioa

Hasiera batean, *Jostailuen kutxa* balleta da, eta gauez bizia hartzen duten jostailuak ditu protagonista. Musika duela ia mende bat idatzi zuen Claude Debussy konpositore frantsesak, eta, beraz, garai hartako jostailuak agertuko dira.

☛ Zer jolas nahiago zituzten haurrek XX. mendearen hasieran? Ziur liburu edo film batean baino gehiagotan aurkituko ditugula haiei buruzko erreferentziak.

☛ Asko aldatu dira jostailuak garai hartatik gaur egunera? Gaur egungo haurrek soldaduekin, pailazoekin eta panpinekin jolasten jarraitzen dute?

☛ Ipuineko musika piano batek jotzen du... Kontsolekin, ordenagailu-jokoekin eta egungo beste entretenimendu batzuekin, berriz, zer musika- eta instrumentu-mota lotuko genituzke?

Musika-entzunaldia

Claude Debussy musikagileak oso estilo berezia du.

Haren sonoritatea ezagutzeko, bere orkestra- edo piano-lanaren pasarteak entzungo ditugu ikasgelan. Pieza bereziki esanguratsuak aukeratuko ditugu, hala nola *Images* seriekoren bat, *Fauno baten lo-kuluxkaren preludioa* edo *Jostailuen kutxa*.


Musika-hizkuntza - instrumentazioa

Aurreko entzunaldietan ikusi ahal izan dugunez, musikari frantses honek hainbat eskala erabiltzen ditu bere obretan. Batzuek paraje exotikoetara eramaten gaituzte, hainbat kulturatako musikan oinarriturik baitaude, hala nola pentatonikoan edo tonu osokoetan (hexatona).

Primeran legoke Javako gamelanen musikaren adibide batzuk entzutea, Debussyrengan hainbesteko eragina izan zuten metalofono, xilofono eta gongekin.

☛ Txirularen eta xafla-instrumentu kromatikoaren laguntzaz, musika-mota hori eta dagozkion eskalak birstortu eta landu ahal ditugu gelan, inprobisazio melodikoak egiteko.

Eskala pentatonikoa





☛ Taldeka, ikasle batek txirulaz inprobisatu bitartean, kideek alde z aurretik denen artean sorturiko pordoia joko dute, adibidean adierazitako bi notetan (DO SOL) oinarritua.

Tonu osoen eskala (hexatonoa):



☛ Ikasle batzuek ostinatoak sortuko dituzte instrumentu kromatiko baxuekin; beste batzuek, berriz, inprobisazio-gurpila egingo dute karilloiekin.

Ahots-adierazpena

Ipuinaren amaieran, oso doinu bizia dago. Polka bat da. Honela jotzen da:

POLKA

1

Va-mos a can - tar y a bai-lar la Pol - ka con rit - mo, no se te olvide dar tres

pa - sos. Va-mos a can - tar y a bai-lar la Pol - ka con rit - mo, no te se-pa-res, por fa -

2

vor. Ven a - quí, her-ma - ni - to que - ri - do, lai la la la la la-ra

la. No te escapes, que me enfado con-ti-go, lai la la la la la-ra la.



Jostailuen kutxa

1. *Vamos a cantar y a bailar la polka
con ritmo, no se te olvide dar tres
pasos.*
*Vamos a cantar y a bailar la polka
con ritmo, no te separes, por favor.*
2. *Ven aquí, hermanito querido, lai la la la la la la*
No te escapes, que me enfado contigo, lai la la la la la la

E Kanta ikasi eta maila bakoitzera egokitutako beste jarduera-mota batzuetan txertatuko dugu. Hona hemen lanerako hainbat iradokizun:

1. eta 2. zikloa

Abestia kantatu bitartean, biribilean jolastuko gara. Ikasle guztiak biribilean jarriko dira, bat izan ezik, hori biribilaren erdian egongo da. Abestiaren 1. zatia abestuz biribilean aurrera egingo dugu, alboko galopa leunez; erdian dagoen ikasleak jauzi egingo du, aurrera egin gabe. 4. konpasean, martxaren noranzkoa aldatuko dugu.

2. zatian, geldirik egongo gara; erdikoak taldeko beste ikasle bat hautatu eta berarekin eramango du lehen esaldiak iraun bitartean. Bigarrenetan, biribilera joango da, eskuarekin agurtuz, eta erdian hautaturiko ikasle hori geratuko da. Berriz hasiko gara.

3 zikloa

Doinua txirulaz joko dugu, tempo motelean. Akonpainamendua asma dezakegu, soinu zehaztugabeko edo zehatzeko perkusio-instrumentuekin, eta tonikaren eta dominantearen gaineko pordoiak edo ostinatoak sortu.

Ahots-adierazpena eta gorputz-perkusioa

Debussyren obra honetan, lehen ikusi bezala, beste musika eta estilo batzuen eragina antzeman dezakegu. Horren beste adibide bat Ragtime delakoa dugu, egilearen garaian, XX. mendean, Ipar Amerikan garatu zen musika-mota bat, Jazzaren hazia, hain zuzen ere. Erritmo irregular edo sinkopatua du bereizgarri nagusi.

Partitura honetan, kanta osoa dago: RAGTIME

RAGTIME





Jostailuen kutxa

Jarraian, doinu hori oinarri sor daitezkeen egokitzapen edo moldaketa ugarietako bat dago.

RAGTIME

Tema

Grupo A. la la...

Grupo B. tom tom...

A. Palmas

B. Pitos

A. y B. Pies d. i.

☛ Abestia jotzeko eta kantatzeko, ikastaldea hiru taldetan banatuko dugu: Doinua, A taldea eta B taldea. Lehenengo taldekoek doinua joko dute, musika-mota honetarako egoki deritzeten bitartekoekin (txistua, ahapetik kantatu, txirula...). Horrez gain, oinekin erritmoa markatuko dute, mugimendu hori gorputz osoarekin lagunduz. Beste bi taldeetako kideak dagozkion ahotsaz eta gorputz-perkusioaz arduratuko dira, partiturari jarraikiz. Talde guztien elementu komuna swing ugariko kulunka izango da. Abestia nahi beste aldiz errepikatuko dugu, eta azken konpasaren aldi bietan kalderoi bana egingo dugu.

☛ Ragtime klasikoaren adibide batzuk entzuteko balia dezakegu aukera, musika- mota horren ordezkarri nagusi Scott Joplinen kantaren bat hautatuta.



Adierazpen dramatikoa

Ipuinean, jostailu asko agertzen dira: panpina bat, egurrezko soldadu bat, pailazoak, suge-sorgintzaile bat, elefante bat, etab. Gehien gustatzen zaiguna aukeratu edo bestelakoak asmatuko ditugu.

☛ Imajina dezagun ez daudela Debussyren jostailuen kutxan, baizik eta jostailu-denda batean, oraindik ez dituelako inork erosi. Umeetako batek eroslearena egingo du, eta beste batek saltzailearena. Zenbait minutuz, jostailu bakoitzaren mugimenduak eta soinuak nork bere aldetik landuko ditugu. Erosleak bere pertsonaia prestatuko du (nolakoa den, zenbat diru gastatu nahi duen, zein jostailu erosi nahi duen eta norentzat, etab.); saltzaileak zein jostailu saldu nahi duen eta zergatik pentsatuko du (garestiena, zaharrena...).

☛ Denak prest daudenean, inprobisazioa hasiko da. Ahalegina egingo dugu denek esanak uler daitezen, eta jostailuak geldi edo mugimenduan dauden uneei fidelak izaten saiatuko gara.

☛ Irudika dezakezu zer gertatzen den denda ixten denean?





Dantza

Ipuinaren amaieran, panpina dantzariak eta soldaduak baserrian ospatzen zituzten festetan seme-alabekin dantzatzen zuten Polka entzun genuen. Doinua ezaguna dugu, aurretik ikasi genuen izenburu bereko abestiarena baita.



Orain, koreografia ikasiko dugu. Debussy musikari frantsesa denez, dantza frantseseko pauso batzuk hautatu ditugu, Pirinioetatik gertuko Bearn eskualdeko Polka bat, zehazki. Jolas txiki honetan, ikusiko dugun moduan, aldagai berriak asmatzeko aukera dago.

☛ Musika irakasleak jo dezake, txirulaz edo teklatuaz, edo denon artean moldaketa txikia egin dezakezue gelan dituzuen instrumentuekin, eta dantzariet laguntzeko fanfarre txikia sortu, zeina, gainera, abestu egingo duten. Komenigarria da panderoarekin dantzaren pausoen erritmoa markatzea.



POLKA

A

melodía

danza/pandero

4

8

B

12

d. i. índice d. d. i. índice i.

16

índice d. índice i. vuelta

FORMA AB




fig. 1

fig. 2

fig. 3




Jostailuen kutxa

☛ *Koreografia:*

Bikoteka, eskuetatik helduta eta besoak luzatuta (1. eta 2. irudiak). Erlojuaren orratzen kontrako noranzkoan mugituko gara. Mugimendu guztiak jauzika egin behar dira.

- A. **1-8 konp.:** Polka piquée delakoaren 4 pauso, noranzkoa txandakatuz.
(Polka-pauso bakoitza 2 konpas dira: takoia, punta eta alboko 3 pauso).



B. **9.-16. konp.:**

- (9. k.) Gauden tokian bertan ezkerreko oinarekin jauzi egin eta eskuinekoa aurrerantz luzatu, eta alderantziz.
(10. k.) Eskuineko eskuko hatz erakuslearekin "mehatxatu".
(11. k.) 9. konpasa errepikatu.
(12. k.) Ezkerreko eskuko hatz erakuslearekin mehatxatu.
(13.-14. k.) Eskuinekoarekin eta gero ezkerrekoarekin mehatxatu.
(15.-16. k.) Bira jauzi eginez eta eskuineko ukondoetatik helduta.

Erronda bakoitzean, B zatian, hatzarekin mehatxatu beharrean, neba-arrebek musu eman diezaiokete elkarri, edo atximur egin masailean, edo belarrietatik leunki tiratu... Denon artean, zein ekintza eta zein hurrenkeratan egingo ditugun aukeratuko dugu.

☛ Egingo dugu mozorro-dantzaldia?

Ikasle bakoitzak ipuineko jostailuetatik gustuko duena aukeratu eta bere mozorroa prestatuko du. Horrez gain, ikasle guztiek panpina-dantzaldi honetarako egoki irizten dioten abesti edo musika-pasarte bat eramango dute gelara. Polka festa-amaiera bikaina izango da.

☛ Martxa: aukeratu ostinato erritmikoetakoren bat eta idatzi soldaduei buruzko prosodia bat.





Instrumentu-adierazpena

Obra ikus genuenean, soldaduen eta pailazoen arteko borroka izugarriaren lekuko izan ginen. Giro militarrekin lotzen ditugun musika-soinuak martxak, tronpeta-deiak eta danborrak dira, besteak beste. Baina jostailuen arteko borrokaz ari garela, jostailuzko instrumentuekin osaturiko musika-akonpainamendu bat irudika dezakegu, ezta?

☛ Hurrei eskolara honelako objektuak ekartzeko eskatuko diegu: plastikozko tronpetatxoak, turutak (kazooak), danbortxoak, txilibituak, danbor-txintxirrinak... Horiekin guztiekin, martxan jarriko gara, hau da, martxa militar bat sortu eta joko dugu, dibertigarria, gerra-erakoa baino. Kontsignak sortu eta erritmikoki esan ditzakegu, baita pausoak eta desfileak ere, eta, oro har, martxaren musika aberastuko duen baliabide oro.

Hona hemen jarduera bideratzeko balio dezaketen iradokizun batzuk:

The image shows three staves of musical notation. The first staff is labeled 'Tambores' and contains a series of eighth notes with stems pointing down, followed by a double bar line and a repeat sign. The second staff is labeled 'Turutas' and contains a series of eighth notes with stems pointing up, followed by a double bar line and a repeat sign. The third staff is labeled 'Trompetillas' and contains a series of eighth notes with stems pointing up, followed by a double bar line and a repeat sign. The notation is simple and rhythmic, designed to be played by children.






Jostailuen kutxa

Adierazpen plastikoa eta dramatizazioa

Itzalaren antzoki bat egingo dugu *Jostailuen kutxaren* gainean. Pantaila zeharrargi bat (zintzilikatutako izara batek balioko du, ondo zabalduta), argi-proiektore bat (diapositiba-proiektorea, foku edo linterna indartsu bat...) eta jostailu-silueta batzuk beharko ditugu.

☛ 4-6 ikasleko hainbat talde osatuko ditugu. Antzezpenak taldekideen artean asmatu eta idatzitako gidoi finko bati jarraituz egin daitezke, edo inprobisazioa landuz, aldez aurretik hitzartutako jarraibideen arabera.

☛ Muntaiaren agertuko den pertsonaia-eta elementu-kopurua zehaztu ondoren, siluetak kartoi mehe lodi batean marraztu eta moztuko ditugu, eta atzean hagaxka bat jarriko diegu (makilatxo bat, arkatza...), mugiarazteko balioko diguna. Irudiek ez dute zertan oso handiak izan, 10-15 cm-koak nahikoa dira. Itzalaren tamaina fokuari, siluetaren eta pantailaren arteko distantziaren arabera izango da.



☛ A! Ez dezagun ahaztu soinu-banda. Gidoia eta siluetak egiteaz gain, talde bakoitzeko kideek antzezpenari laguntzeko musika-hautaketa txikia egingo dute.

Beste jostailu-kutxa batzuk

Ziur *Jostailuen kutxa* ipuin musikalak panpinek eta jolasek protagonizaturiko beste obra batzuk ekarri zizkigula gogora. Zenbait gogoratzen saiatuko gara, haiez gozatzeko une egokia izan daiteke eta.

Obra musikalak

Intxaur-hauskailua, P. Tchaikovskyren balleta

<https://www.youtube.com/watch?v=xtLoaMfinbU>

<https://www.youtube.com/watch?v=Fp6d7ONYtQY>


Jostailuen sinfonia, L. Mozartena

https://www.youtube.com/watch?v=9KrGIyd_PD4

<https://www.youtube.com/watch?v=1mihLVZobE>



Haur-jolasak, G. Bizetena



Jostailuei buruzko kantak

Panpina bat daukat...

Herri-ipuinak

Pinotxo

<https://www.youtube.com/watch?v=1FnfkCLXI5g>

<https://www.youtube.com/watch?v=1GDqTZzrObM>

Berunezko soldadutxo

<https://www.youtube.com/watch?v=IU9vdxxeI5M>

Filmak

Toy Story I, II, III

<https://www.youtube.com/watch?v=1guCjulfNZI>

<https://www.youtube.com/watch?v=y33mJxhxXWo>

Alice lurralde miresgarrian <https://www.youtube.com/watch?v=NnAN3wkIKIE>

<https://www.youtube.com/watch?v=zfyFLqEW58>



ERANSKINA

Jostailuen kutxa (ipuin musikala)

Testuak: Mark Kilfoyle eta Meirion
Bowen

Fernando Palaciosen berrikuspena

Preludioa

Imajina ezazue! Jostailu ugariz betetako kutxa bat, denak loaldi sakonean. Gauez, lo egiten dute, jostailu-kutxa batean daudela amesten dute... ametsetan. Panpina baten ametsa dantzaria izatea da! Eta egurrezko soldadu batek, berriz, borroka batean irudikatzen du bere burua ametsetan!

Batzuetan, baserriko familia lotara joaten denean, jostailuen kutxa bat-batean ireki eta kaosa sortzen da. Marinelak ateratzen dira aurrena, abesten eta iskanbila galanta sortzen; egurrezko soldaduek desfile martziala egiten dute; polizia borraz mehatxuka ibiltzen da hara eta hona. Elefanteak ere tartean egon nahi du, eta irudika dezakezue zer izan daitekeen hori. Pailazoak, normala den bezala, bertan izaten dira, ahal bezainbeste txantxa egiten.

Baina gau hartan, lasai zegoen dena, ez zen ezer mugitzen, ezta entzuten ere.

Halako batean, panpina, bals bat dantzatzea amesten zebilena beti, isil-misilka atera zen txokotik...

1. eszena: Jostailuen biltegia

... argiak piztu zituen eta disko-jogailura hurbildu zen... Bolumena! Ez zen jaisteaz gogoratu, mundu guztia esnatuko zuen!

Beranduegi, gainerako panpinak esnatu eta zer gertatzen ari zen ikustera irten ziren. Pailazoak ere bai. Eta halabeharrezkoa jazo zen: jostailu guztiak esnatzen hasi ziren. Soldaduak eurak barne, lo sakon-sakona izaten badute ere. Eta, noski, elefantea ere agertu zen. Suge-sorgintzaileak hipnotizatu zuen, bere oboe magikoarekin, kutxatik atera eta bere atzetik joan zedin.

Akrobatek ere jarraitu zieten, itzulipurdiak eta elkarren gainera jauzi eginez. Panpinak, halako zalapartarekin, ezin zuen dantza egin.

Orduan, soldadu hezi eta onbera bat azaldu zen abesti bat txistukatzen... Baita panpinaren mutil-laguna ere, pailazo aurpegi handi samarra. Oso dibertigarria zen, baina apur bat lotsagabea. Zertan zebilen? A!, asmatu berri zuen dantza bat erakusten.

Postaria agertu zen, eskuan gutun bat zeramala. "Kontuz txakurrarekin!".

Ezustekearen ondoren, postariak, hankan haginkada bat jasota, gutuna banatu eta nekez jarraitu zuen aurrera. Jostailuak bata bestearen gainean pilatu ziren, idazkia irakurri nahian. Panpinak abagunea baliatu, balleteko zapatilak jantzi, bi zilipurdi egin eta, denen arreta beste gauza batean zegoela aprobetxatuta, bere bals kutuna dantzatzen hasi zen. Oin-puntetan, biraka, pailazoa zegoen tokiraino heldu zen... hark eskutik heldu zion eta biek dantzatu zuten balsa.



Jostailuen kutxa

Baina pailazoak, bizizale galanta bera, panpina bakarrik utzi eta alde egin zuen.

Denek txalotu zuten panpina dantzaria. Baina non zegoen pailazoa? Aha! Hantxe, bi txotxongilo erakargarriekin ligatzen. Txoriburuak haiekin dantzatzeko utzi zuen bakarrik panpina gajoa.

Panpina, pailazoaren paretik pasatzen zenean, hari heltzen saiatzen zen, baina hark iseka egiten zion, hain jauzi handiak eginez, ezen hegan ari zela zirudien.

Soldadu iritsi berria, pailazoaren jokabideak suminduta, dantzariari laguntzera gerturatu zen.

Panpinak, haserre, lurrera bota zuen beti aldean zeraman lorea.

Soldaduak atoa jaso eta ezpainetara eraman zuen. Baina dantzaria ez zen ohartu ere egin soldaduaz, pailazoaren dantza magikoak liluratuta baitzegoen.

Soldadua triste jarri zen. Gainera, jada ez zuen panpinari maite zuela esateko astirik: tronpeta deika zuen, bere eginbeharra bete zezan.

Jostailu guztiak gogoa berotuta zeuden. Hainbestearino, non ez ziren konturatu egunsentia bazetorrela... ezta norbait gerturatzen ari zela ere.

- "Ernel, eguna laster argituko du. Umeak jaikita daude".

Orduantxe sartu ziren guztiak -elefantea, soldaduak, pailazoak eta txotxongiloak- kutxan aitaren batean. Jostailuek sakonki lo zeudelako plantak egin zituzten.

Atea irekitzen hasi zenean, panpinak argi-etengailua sakatu zuen bizkor. Eta argiak itzali egin ziren!

Panpina eta pailazoa aspalditik ziren bikotea; halere, harremana ez zihoan oso ondo, batez ere pailazo zitalak ez zuelako garbi jokatzeko, eta panpina kokoteraino zegoen.

Egunsenti batean, haritz zahar baten adarren pean eserita, elkarri txorakeriak esaten ari ziren belarrira.

2. eszena: Borroka-eremua

Pailazoa, beti bezala, adarra jotzen ari zitzaion panpinari, eta, algara artean, gezurrezko maitasun-hitzak esaten zizkion. Panpinak egunen batean benetako eztei-eraztun bat emango ziolako itxaropena zuen, baina bai zera!

Pailazoa bizinahi hutsa zen, eta ez zuen inorekin ezkontzeko inolako asmorik. Neska pozteko, musu barregarriak ematen zizkion sudurrean.

- "Zer da zarata hori?!" □galdetu zioten elkarri.

- "Gauza bakarra izan daiteke... etsaia!" -esan zuen pailazoak.

Bai horixe, egurrezko soldaduen kapitaina sablea airean agertu zen. Panpinak bere burua babestera jo zuen, eta pailazoa laguntza eskatzen hasi zen:

- "Lagundu, lagundu!".

Soldaduak pailazoekin behin betiko borroka egiteko prestatzen ari ziren. Armaz zeharo hornituta, pailazoak haiek uxatzera agertu ziren. Borroka basatia zen.

Lehen erasoari, ur-pistolenari, tiragoma erraldoiekin erantzun zioten pailazoek, ilar-mordoa jaurtiz.

Handik pixka batera, soldaduak eta pailazoak, denak irabazleak zirelakoan, garaipena abestuz sakabanatu ziren.



Jostailuen kutxa

Gau hartan, ilargiaren argipean, egurrezko soldadua zaurituta zetzan borroka-eremuan. Bihotz ondoan, lurretik jasotako lorea zeukan, panpinarena.

Erizain bat gerturatu zitzaion sendatzera... badakizue nor zen? Panpina...

Alabaina, ilunpetik, pailazo gaiztoa ere azaldu zen. Isilka, lurrean zetzan soldadua rengana hurbildu zen. Panpina mutu geratu zen, izuak jota. Pailazoak soldaduaren eskopeta ostikada batez aldendu, lorea kendu eta burlati barre egin zion.

- "Zuk ez duzu berriz lanik emango" -esan zuen mespretxuz, eta, lorea urrutira botata, ilunpean desagertu zen.

Panpinak soldadua eserarazi eta, haren mina arintzeko, besarkatu egin zuen.

- "Ez dut harekin jarraitu nahi, doilorra da. Zurekin geratuko naiz".

Dantzariaren zainketei esker, soldadua laster sentitu zen berriro indartsu.

Urrunean, garaipenaren festa entzuten zen. Alta, maiteminduak uzkurtuta geratu ziren, elkar besarkatuta, ilargiaren argipean.

Panpina dantzaria eta soldadua ezkutuan ezkondu ziren. Jostailu guztiak izan ziren ezkontzan, pailazoa izan ezik, jakina.

Hala ere, bikoteari beste arazo bat sortu zitzaion: zail egiten zitzaien bizibidea ateratzea. Soldadua jada ez zen gai borrokarako; panpinak dantzan egiten besterik ez zekien, eta, jakina denez, panpina dantzariak ez dute jarraitzaile askorik. Gainera, ondasun gutxi batzuk zituzten: ardirik gabeko artegi xumea, panpinak gurasoengandik jaso zuena, soldaduaren uniforme, dantzariaren balleteko zapatilak eta bat egin zituen maitasunaren lorea.

3 eszena: Artzain traizionatua

Baina, noski, baserriek maitasuna baino zerbait gehiago behar dute funtzionatzeko!

Zorionez, egun batean, artzain baten xaramela zarpaila entzun zuten urrunean.

Soldaduak zera pentsatu zuen: "Zertarako balio du ardirik gabeko artegiak". Fusila, botak eta uniforme saldu, eta bere aurrezki apalekin ahal beste ardi erosi zizkion artzainari.

Badakizue zenbat jaso zituen trukean? Lau baino ez. Bere negozio ñimiñoa handitzeko, soldaduak dirulaguntzak eskatu zizkien bankuei, eta, xalo halakoa, haien erantzunaren zain geratu zen.

Denbora aurrera zihoan, baina erantzunik ez! Beste egun batean, kasualitatez, neska bat igaro zen handik antzara-talde batekin.

Panpinak akordioa egin zuen harekin: bi antzararen truke bere balleteko zapatilak emango zizkion. "Ados!".

Ez zuten askorik, baina zoriontsuak ziren... hain zoriontsuak, ezen ez zioten jaramon handirik egiten artzainaren xaramela goibelari. Eskutik helduta, lasai ibiltzen ziren pasieran arratsaldeko argipean. Bikoteak bere etorkizuna amesten ematen zituen egunak.

4. eszena: Aberastu ondoren

Soldadua rentzat, armada iraganeko kontua zen.

Dirulaguntza ez zen sekula iritsi. Bai, ordea, albiste bitxi hau: ardi bat, Dolly izeneko, bikoiztua izan da!



Jostailuen kutxa

Soldaduak nola egin ikasi, bere artaldea bikoiztu, eta baserritar dotorea bilakatu zen. Panpinak, dantza behin betiko utzita, antzarak biderkatzen jarduten zuen.

Haien seme-alabak ere biderkatu egin zirenez, festa asko antolatzen zituzten, non guztiek, amaren gidaritzapean, polka dantzatzen zuten, besteak beste.

Epilogo

Eta hantxe jarraitzen dute ezin zoriontsuago. Familiak, noski, kutxa handi batean gordetzen ditu jostailu guztiak.

Gauetz, kutxako jostailuek lo eta amets egiten dute: panpinak dantzan egin nahi du, marinelek abestu, pailazok pailazokeriak egin. Jostailu guztiek egiten dute lo eta amets... batek salbu, egurrezko soldaduak, hain zuzen ere; hark, begi-keinua eginez, hauxe esaten digu: "Gero arte!".

* * *